

Nevermind the blogs!  
Artea blogosferan

Natxo Rodriguezek idatzita, astelehenean, abenduaren 12an, gaueko 12etan.

Azken boladan, blogen etengabeko agerpenari "Blog bang" deitu omen diote zenbaitek. Eta motiboak badaude, zeren eta gaur egun, Europan bakarrik, interneten irekitako blogak milioika baitira. Artean, berriz, panorama ez da hain emankorra, oraingoz.

Telos, Cuadernos de Comunicación, ospe handiko aldizkako argitalpenak bere koaderno zentrala eskaini dio blog fenomenoari. Blogak, bitacorak edo weblogak, Telos-ko Dossierrean Saez Vacasek dioen moduan, *Interneteko komunikaziorako subespazio kementsu* bihurtu diren seinale nabaria da. Aipatutako koadernoan Antonio Fumerok definizio pare bat ematen dizkigu, primeran datozkigukeenak. Bere esanetan, *blog izentzat hartzen da funtzionalitate bereizgarriak erakusten dituen web gunea, non dinamika berezia ematen den, eguneratze maiztasun altu samarrarekin. Gainera, edukiak alderantzizko modu kronologikoan antolatzen dira, argitaratu berriak lehendabizi agertuz (goian)*. Geroago, beste bat gehitzen du asmo objektiboagoarekin, Blog Herald-ek emandakoa, hain zuzen: *Bloga testu, irudi, objektu multimedia eta datuen hierarkia da. Kronologikoki antolatuta. Edukiak zabaltzeko sistema baten sostenguarekin. Honek egileari edukiak maiz zabaltzeko ahalmena eman behar dio, ezagutza tekniko gutxiarekin. Ondorioz, edozein gairen inguruan komunitate birtualak eta lotura sozial adierazgarriak sor daitezke*.

Halere, definizioz aparte, nolabait guztiok dakigu, edo gutxienez ideiarenekin bat dugu, kontu berri honen gainean. Normalki, gune pertsonalak dira eta istorio pertsonalekin dute lotura; diario gisa askotan, kazetari-asmoz besteetan. Artikulu (post) honetan proposatzen dudana, hala eta guztiz ere, ez da arte-blogosferari egindako begiraturia, baizik eta meta-hiztegi propioan *blogroll* deritzona. *Blogroll* weblogen esteken selekzioa da, weblog gehiagora jotzeko intentzioarekin. Weblogen egileak irizpide ezberdinak dituzte bilduma hauek euren *blogroll*etan sartzeko. Oro har, weblogen zerrenda osatzen da egileek maiz bisitatzen dituzten blogekin. Kasu honetan bezala, artearen inguruetan, hain zuzen.

#### Blogroll

Papel Continuo: <[www.papelcontinuo.net](http://www.papelcontinuo.net)> Seguru asko, ikusi nuen lehendabizikoetatik bat, nik dakidala behintzat. Iradokizun taulatzat planteatua, Vudumediako lagunen proposamenak beti dira aberasgarriak. Diseinu frikietatik, ilustratzaile ezkutatuaren laneraino, erreferentzia anitzetik pasatuz, eta nolabaiteko ukipen undergroundarekin. E-Valencia: <[www.e-valencia.org](http://www.e-valencia.org)>. Hauxe, bai zela lehenengoa, oraingoa jakin gabe. Edo bederen, Daniel García Andujarrek abian jarri zuenean, erabiltzen zuen software zela eta, ez zen aintzakotzat hartua. Andujarren proiektuan Valentziako politika kulturalen segimendua, oraindik, makina berri argitaratzen eta eztabaida biziak sustatzen burutzen da. Izan ere, proiektu bikiak sortarazi zituen, Andujarrek berak bultzatutrik, e-barcelona kasu. Hemendik ere, erreplika izan zuen, nahiz eta berak parte hartu ez, inspirazioa bera izan arren, <[www.amarica.info](http://www.amarica.info)>, alegia. Arabako plataforma Amarikaren ekimen honek, gaur arte, Arabako arte garaikideari buruzko 1.500 artikulua eta iruzkin baino gehiago jaso ditu politika kulturean eztabaida sortzeko asmotan.

Zentzu zehatzagoan, batez ere artearen kritikan oinarrituta, Agencia crítica <[www.agenciacritica.net](http://www.agenciacritica.net)> eta Salon kritik <[www.salonkritik.net](http://www.salonkritik.net)> dauzkagu. Hauetan, José Luis Brearen eskutik, Estatuko egunkari eta astekari nagusietan argitaraturiko artikulua jasotzen dira. Gehienak, iritzi artikulua eta erakustaldien kronikak. Espainiar Estatu mailan ere, El Perro taldeak euren gunea jarri du martxan sarean, Contraindicaciones izenekoa <[www.contraindicaciones.net](http://www.contraindicaciones.net)>. Euren xedeak ez dira hain akademiko edota instituzionalak eta artikuluen artean taldearen ekimenak, nahiz beste ekitaldi artistikoak edo kontu sozialekin zerikusia duten berriak aurki ditzakegu. Teknologiaren erabilera teknologikoekin eta sare sozialekin lotura duen blogzine dugu Ptqk <[ptqkblogzine.blogia.com](http://ptqkblogzine.blogia.com)>. Bilbon oinarrituta, arte esperimentalei, hiri-ekintzei eta ziberkultura kritikoari adi daude. Netlach ekitaldian, Bilboko lehenengo ziberkultura eta baliabide berrien arteko topaketan, hain zuzen, kolaboratu zuten, arestian.

Musika osagarri gisa gehitzen dutenen artean ere inizatiba hurbilak dauzkagu: Mamorro <[mamorro.blogia.com](http://mamorro.blogia.com)> eta 9CDR (es rüido BLANDO...) <[9cdr.blogia.com](http://9cdr.blogia.com)>. Lehenengoa, antzinako eta legendazko Mamorro izeneko fanzinetik dator, Txema Agirianori esker. Egun hauetan, esaterako, Bilboko MEM jaialdiari buruzko informazio eskuragarria dugu bertan. 9CDRn blog gogotsu eta dinamikoa dugu. Batik-bat Donostian, edo euskal hirian euren esanetan oinarrituta bideo pantailaratzeak, skate erakustaldiak edota bestelako proposamenen berri ematen baita.

Amaitzeko asmoz, azken hiru iradokizunak: gutizia bat eta gertuago sentitzen ditudan bi blog berri. Alde batetik, Infosthetics <[www.infosthetics.com](http://www.infosthetics.com)>, gunea bitxia da. Soilik, datu, sare eta informaziaren bisualizazioak eta irudikatzeak gomendatzen dira. Leku benetan espezializatua, edozein aitzakia harturik

soluzio estetiko harrigarriak ikusteko. Eta azkenik, Artelekuk, blogaren fenomenoaz ere baliatuz, arte praktika eta eztabaidaren inguruetan komunitatea sorrarazi eta mantendu nahian, interneteratu berri dituen bi blogak: Audiolab <[www.arteleku.net/audiolab](http://www.arteleku.net/audiolab)> eta Laburrak <[www.arteleku.net/laburrak](http://www.arteleku.net/laburrak)>. Lehenengoan, Artelelekuko soinu tailer esperimentalaren inguruetan sortutako berriak, ideiak edo bestelako proiektu interesgarriak islatzen dira. Laburrak izenekoan, berriz, aspalditik ateratako baliabidea gaurkotzen da blog formatura egokituz. Bertan, orain dela aste batzuetatik, kultura digitalaren panorama ezagutzera ematen da formatu laburreko hainbat berriren bidez.

2005/12/12 23:56 #. Gaia: ARTEA. Ez dago Iruzkirik. Iruzkina egin.

Natxo Rodríguez Arkaute

---

- Publicado en Mugarari (GARA) el 24/12/2005.

- Este artículo se publica bajo una licencia Creative Commons

Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 2.0. Usted es libre de copiar, distribuir y comunicar públicamente la obra por cualquier medio, siempre que se haga de forma literal, sin fines comerciales y citando al autor.